

Fakultatean

A. Entzun audioa eta erantzun galdera hauei.

1. Ikasle bat hitz egiten ari da. Zergatik?

- Aspertuta dago
- Ez du zerbait ulertu

2. Zer galdetu dio ikasle batek besteari?

- Izena
- Bizitokia
- Adina

3. Non ikasi du neskak?

- Madrilen
- Euskal Herrian

4. Eta mutilak?

- Madrilen
- Euskal Herrian

5. Zer egin du irakasleak?

- Neska arbelera atera du
- Kalera bota ditu bi ikasleak

6. Nolakoa da irakaslea, mutilaren ustez?

- Aspergarria
- Atsegina
- Ona

B. Zein esaldi entzuten dira audioan?

| | <i>Esaten dute</i> | <i>Ez dute esaten</i> |
|-----------------------|--------------------|-----------------------|
| Zure errua da! | | |
| Lasai! | | |
| Ezin dut jasan! | | |
| Etorri hona! | | |
| Ez da harritzekoa! | | |
| Erotu egin zara, ala? | | |
| Jo, ze aspergarria! | | |
| Bai horixe! | | |
| Ixo! | | |
| Banoa! | | |

C. Osatu elkarrizketa.

naiz / ikasi / Kaixo / Nor / Madrilen / Ni / hemen / non / duzu / zu

JOSU.- _____ ! _____ zara? Talde berean gaude eta ez dugu sekula hitz egin.

AMAIA.- Amaia_____. Eta_____?

JOSU.- _____ Josu. Klasetik atera eta tabernara joango gara? Ezin dut jasan!

JOSU.- Bueno, eta zuk_____ duzu?

AMAIA.- _____, asko kostatzen ari zait berriz euskaraz ikastea!

JOSU.- Ez da harritzekoa! Ni, berriz, beti_____. Ez naiz kanpora atera

Transkripzioa.

“NOR ZARA ZU?”

Amaia eta Josu elkarren ondoan eseri dira fakultatean eta, irakasle aspergarri bat entzuten ari diren bitartean, elkar aurkeztuko dute.

IRAKASLEA.- (gazteak hizketan ari diren bitartean, atzetik entzungo dugu)...eta, gogoratu, nire asignaturako kredituak lortzeko...

JOSU.- (konbertsazio gogoz) Jo, zer aspergarria! Ez da isiltzen!

AMAIA.- (isiltzeko esango diot) xxxxt!

JOSU.- Kaixo! Nor zara? Talde berean gaude eta ez dugu sekula hitz egin.

AMAIA.- (baxu) Amaia naiz. Eta zu?

JOSU.- Ni Josu. Klasetik atera eta tabernara joango gara? Ezin dut jasan!

AMAIA.- (eskandalizatu samar) Ez! Erotu egin zara, ala?

JOSU.- Irakasle honek beti gauza bera esaten du, (imitatuz) “kredituak lortzeko, lan txukun- txukun bat egin beharko duzue...”

AMAIA.- Kar-kar! Ixo! Entzun egingo dizu!

JOSU.- Ez, karreran ere nire irakaslea izan zen eta gor-gorra da, lasai, ez du ezer entzun.

ETENA!!!! (00:45)

JOSU.- Bueno, eta zuk non ikasi duzu?

AMAIA.- Madrilen, asko kostatzen ari zait berriz euskaraz ikastea!

JOSU.- Ez da harrizkeoa! Ni, berriz, beti hemen. Ez naiz kanpora atera.

AMAIA.- Ba, aukera ederra da ateratzea, eta asko ikasten da! Eta ez unibertsitatean bakarrik!

JOSU.- (erdi lotsatuta) Bai, hala izango da, baina bueno, ni ere herri txiki batetik etorri naiz hona.

AMAIA.- Ez da gauza bera!

ETENA!! (01:11)

IRAKASLEA.- ...Ederki, antza denez, hizketan egiteko gogoia duzu. Ba, atera hona eta zuk jarraitu.

AMAIA.- Baina, ni...!

IRAKASLEA.- ...Etorri, etorri hona, denok entzun nahi dugu-eta.

AMAIA.- (Josuri) Zure errua da!

JOSU.- Bai, barkatu!

AMAIA.- Ikusiko duzu gero!

JOSU.- kar-kar! Tabernan egongo naiz zure zain. Aio!

AMAIA.- (irakasleari) Banoa!

Erantzunak

A.

1. Aspertuta dago
2. Izena
3. Madrilen
4. Euskal Herrian
5. Neska arbelera atera du
6. Aspergarria

B.

Esaten dute / Esaten dute / Esaten dute / Ez dute esaten / Esaten dute
Esaten dute / Esaten dute / Ez dute esaten / Esaten dute / Esaten dute

C.

*naiz / ikasi / Kaixo / Nor / Madrilen / Ni / hemen /
non / duzu / zu*

JOSU.- Kaixo! Nor zara? Talde berean gaude eta ez dugu sekula hitz egin.

AMAIA.- Amaia naiz. Eta zu?

JOSU.- Ni Josu. Klasetik atera eta tabernara joango gara? Ezin dut jasan!

JOSU.- Bueno, eta zuk non ikasi duzu?

AMAIA.- Madrilen, asko kostatzen ari zait berriz euskaraz ikastea!

JOSU.- Ez da harritzekoa! Ni, berriz, beti hemen. Ez naiz kanpora atera.